



Unibersidadia XX. gizaldixaren hasieran



illa bider ikusi dogun parajia erakusten dosku gaurko fotografixa honek. Hala be, ondo erreparau ezkeru, bada-ko bere berezitasuna. Aspalditxokua dala, jakiña, baiña ez hori bakarrik; atara zan garaittik hona makiñatxo bat aldakuntza egin dira unibersidade-aurrekalde horretan, eta agerketara noaitzue.

Horma baten atzian, hor aurre-aurrian, agiri dan **ortua** partikularra zan orduan eta eskumataru eguen abadetxe zaharretik errekaraiño zabalketan zan. Herrixak 1920ko hamarkada aldera erosi eben, hormia eretsi eta arbola barrixak ifiñi zittuan; guk mutikotan ezagutu gittuan **arkaziak**, plazakuak lakotxiak. **Abadetxia** bera be II. Errepubliku-denboran bota eta gaur egunekua jasoten hasi ziran. Baiña dana moldau baiño lehenago gerria etorri zan, eta ospittal nahiz beste zeregin batzuetarako ebali zan urte latz hareittan.

Kamiñuaren alde bixetara dagozen **platanu-illarak** ospitaleraño allegaitten ziran eta, zubixa pasau ondoren, gorantz jarraiketen euen. Badakigu Kolejialdetik Urrutxu alderako pasialeku eder hori 1865ian hasi zirala moduketan, herriko kanposantu barrixa egittiari ekin otzaiñian. Handik 55 bat urtera, trenaren estaziñua moldaitteko obrak beste kanbixu batzuk ekarri zittuian unibersidade-alde horretara: bestiak beste, platano-arbolok botatia, zubixa estaziñora begira jartia eta lehen aittatu dogun ortuan nahiz **Gorriñetxe** inguruan arkaziak aldaketia. Dana dala, azkenengo hamarkadetako kamiñogintzaiak askoz gehixago murriztu dau kaposanturako arbolea hori.

Unibersidadia bera, antzera dago itxura batian. Baiña honek be aldaketa majuak izan zittuan hurrengo urtietan. Egixa esateko, barrutik kanpokaldetik baiño gehixago. Hala ta gutziz be, begiratu ondo ezkerretara eta diferentzia batzuk badagozela konturatuکو zarai: goixeneko bentanen artian, eskudopeian eguen balkoitxua kendu egin zan; areto nagusixan beste bentana arkudun bat zabaldu zan; eta behaldekede bi bentanai (bata ixa ezta argazkixan agiri) beste bi gehittu xaten. Obrarik gehixenak 1930tik aurrera burutu ziran.

Esandakuok kontuan hartzen badittugu, fotografixia 1910-1915 ingurukua izan leikiela pentsaitten dogu.

J. E.

Zuzenketia: Fan dan hilleko fotografixan, jaso geben informaziñua zuzena izan arren, geure erruz akats bat agertu zan neskatillan izenetan. Goixeneko illaran eskuma aldera Maria Angeles Blain moduan etorrena Madalena auzoko Arantxa Gorrotxategi zan.